

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

*Hezkuntza Sailburuordetza
Hezkuntza Ikuskaritza Nagusia*


**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA**

*Viceconsejería de Educación
Inspección General de Educación*

HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA

2016 – 2017 IKASTURTEA

HEZKUNTZA IKUSKARITZA E.A.E.





1.- SARRERA

Hezkuntza Ikuskaritzaren planak horrela defini ditzakegu: Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxeetan eta Administrazioari beste toki batzuetan egin beharreko esku-hartzeak gauzatzeko bideak. Halaber, esku-hartze horiek ahalbidetzen dituen zerbitzuaren barne antolaketa jasotzen dute.

Ikastetxeetan esku hartuz, irakaskuntza kalitatekoa eta zuzentasunean oinarritutakoa izateko hezkuntza-legeriak ematen dion eskuduntzaz baliatzen da Hezkuntza Ikuskaritza.

Horretarako, haren jarduerak ez dira araudia betetzen den ikuskatzera mugatu behar; laguntza eta aholkularitza eman behar dizkie hezkuntza-proiektuak aurrera eramateko orduan ikastetxeei, autoebaluazio-prozesuak sustatu behar ditu eta kanpo ebaluazioaren prozesuetan parte hartu behar du. Horrela ikastetxeek ikasle bakoitzari kalitateko hezkuntza-erantzun bat ematea errazten du, ikasteko prozesuetan arrakasta errazago lortzeko eta hezkuntza-emaitzak hobetzeko.

Hezkuntza-administrazioari eta beste instituzio eta erabiltzaile batzuei dagokienez, egiten diren errekerimendu eta eskaeretan lankidetzan aritzea eta legezko bideak erabiliz eskatzen zaizkion txostenak ematea da Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioa.

EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak hainbat urtetako planifikazio estrategiko batean sartzen diren urteko planen bidez antolatzen ditu bere esku-hartzeak. Ildo horretan, 2016-2017ko Urteko Plan honek 2014-2017ko Hirurteko Plan Orokorraren hirugarren eta azken ikasturtea hartzen du. Urteko Plan honen 3. eta 4. ataletan jasota agertzen dira Hirurteko Plan Orokorraren helburuak aurrera eramateko esku hartzeko oinarriko ildoak.

Urteko Planaren jarduerak, ikastetxeen ikuskatzeari buruzko ikuspegitik hasita, ebaluazioaren, aholkularitzaren eta lankidetzaren esparruetan sartzen dira, ondorengo irizpideak kontuan hartuta:

- Ikastetxeak hobetzeko eman beharreko laguntza finkatu eta indartzea, emaitzetatik, pertsonen ebaluaziotik eta kanpo ebaluazioetatik abiatuta.
- Ikuskariak esleitutako ikastetxeetan, esku-hartze globalaren metodologia batekin, egiten duen ikuskatze-lana sustatzea.
- Ikuskariaren prestakuntza hobetzea, profesionalki garatzeko eta horrela barne eta kanpo hartzaileei eraginkortasun handiagoz erantzuteko.
- Hezkuntza Ikuskaritza osatzen duten pertsona guztiek Urteko Plana garatzeko prozesuan duten parte-hartze aktiboan eta inplikazioan sakontzea.
- Euskararen erabilpena sustatzea, Ikuskaritzan hizkuntz normalkuntzari laguntzeko asmoz.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren kudeaketa-sistema bikaina izate aldera aurrerapausoak ematea eta horretan sakontzea, zerbitzua hobeto emateko.
- Berriztapena, beste antolaketa eta ikuskaritza batzuekiko lankidetzatik abiatuz eta praktika berriak trukatzuz, eta Ikuskaritzaren dimentsio europarra sustatu eta sakontzea.

Hirurteko Planaren berrikuntza esanguratsuenak, Urteko Plan honen jardueretan eragina dutenak, hauek dira:

- *ED 2015etik eratorritako hobekuntza-planen balorazioa, Urteko Planak aztertuz.*
- *Erasmus Plus programa europarrean, 2. urtea, parte hartzea eta proiektuaren bukatzea.*
- *Irakaskuntza-funtzioaren diseinua eta ebaluazioa garatzea, hasieran praktiketako funtzionarioei aplikatuz, eta irakaskuntza-perfil bat deskribatuko duen agiri bat egitea, beste edozein ebaluazio-prozesutan erreferentzia-marko bat emango duena.*

- *Hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruz gida-planean agintzen zaizkigun jarduerekin jarraitzea.*
- *Ikuskaritzaren atari elektronikoa ezartzeko prozesuari hasiera ematea. Atari horrek Hezkuntza Ikuskaritza kudeatzeko erabiltzen diren tresna informatiko guztiak azalduko ditu.*
- *Euskararen erabilpena Ikuskaritzan normaltzeko plana hedatu eta ezartzea.*

Urteko Plana egiteko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Sailburuordetza eta Zuzendaritza desberdinen eskaerak, Zonalde Burutzekin Lurralde Artean Koordinatzeko Batzordeak egindako balorazioak, barne komunikazioari buruz egindako ikastaroaren ondorioak, Ikuskaritzaren jardueren hartzailleak zein mailatan dauden pozik jakiteko inkesten emaitzak eta egindako auditorien emaitzak hartu dira kontuan.

2016-2017ko Urteko Planak, garatzeko orduan, ahalik eta eraginkorrena izatearen garrantzia azpimarratzen jarraitu behar du, baita aritzeko orduan irizpide bateratuak izatearen garrantzia ere. Jarduerak lurraldean eta zonaldean banatu beharko dira, lan-kargen arteko oreka eta eginkizunak gauzatzeko izan beharreko eraginkortasuna kontuan hartuta.

Ikuskarien prestakuntza eta gaurkotzea funtsezkoak dira, aginduta duten funtzioak eraginkortasunez garatzeko orduan. Ildo horretan, ahaleginak areagotzen jarraituko da, lana orientatze eta martxan jartzeko irizpideak bateratze aldera. Garrantzi handieneko jarduerari dagokienez, nola garatzen ari diren ezagutzeko eta hobekuntza-proposamenak eta prestakuntza-premiak zehazteko prozedurak ezarriko dira.

Azkenik, Hezkuntza Ikuskaritzak, kudeaketa-sistemaren mantentzean, ISO ziurtagiria UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren arabera berritu du 2015-2016ko ikasturtean eta sistema UNE-EN ISO 9001:2015 arauan ezarritako baldintzetara egokituko du 2016-2017ko ikasturtean.

2.- KALITATEAREN POLITIKA*

Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitatearen politika, Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeak eta Zonalde Burutzek 2006-2007ko ikasturtean adostutako UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren baldintza dena, ondoren adierazten dena da:

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordetzaren menpeko Hezkuntza Ikuskaritzaren ustez, bere lana beharrezkoa da hezkuntza-sistemak, oro har, eta ikastetxeek, bereziki, kalitatez funtzionatzeko.

Horregatik, haren jarduerak, eman zaizkion ebaluazio-, kontrol-, aholkularitza- eta lankidetzafuntzioak, behar bezala kudeatzea premiazkoa da eta ikuskari bakoitzak kontuan hartu behar du eguneroko lanean, Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzionamendu ona segurtatzeko eta hezkuntza-erkidegoa, Hezkuntza Administrazioa eta Hezkuntza Ikuskaritzako partaideak berak ahalik eta gustuen egon daitezen.

Hezkuntza Ikuskaritzan zerbitzuak ematen dituen pertsonala (ikuskariak eta administrazio-pertsonala) haren aktiborik nagusiena da. Ikuskaritza Nagusiak eta burutzek, beren lidergoaz baliatuz eta hierarkiaren, parte-hartzearen, espezializazioaren, profesionaltasunaren, talde-lanaren eta emaitzen ebaluazioaren printzipio antolatzaileen arabera, pertsonala motibatua eta pozik egon dadin egingo dituzte ahaleginak, pertsonal horren giza garapen eta profesionalaren alde lan eginez.

Hezkuntza Ikuskaritzak, Ikuskaritzaren eredu bat finkatzeko prozesuan, bere gain hartzen du antolaketa eraginkor bat izatearen konpromisoa, ondorengo ezaugarriak izango dituen: haren profesionalak parte hartuko dute eskaintako jarduera eta zerbitzuen eguneroko kudeaketan, prozesuak etengabe hobetzera bideratuko da eta hezkuntza-erkidegoa, Hezkuntza Administrazioa eta Hezkuntza Ikuskaritza bera ongi senti daitezen behar diren gestioak egingo ditu.

Antolaketaren helburuak betetzen direla segurtatzeko asmoz, Hezkuntza Ikuskaritzak kalitatea kudeatzeko sistema bat ezarri du, Ikuskaritzaren jarduera gidatu behar duten estrategiak kontuan hartuko dituen. Hauek dira:

- Erkidegoaren premia eta itxaropenei erantzuna ematea: ikastetxeei, ikasleei, gurasoei eta Hezkuntza Administrazioaren arduradunei, beren funtzioetan jarduten dutenean.
- Arreta hobea ematea hezkuntza-erkidegoko kidek egindako eskaerei.
- Hezkuntza Ikuskaritzari eta, bere funtzioak betetzean, egiten dituen jardueri eragiten dieten legezko eta arauzko baldintzak betetzea.
- Ikastetxeetara egiten diren bisiten kalitatea hobetzea.
- Era planifikatuan, koordinatuan eta taldean lan egitea.
- Behar diren planen bidez Ikuskaritzako pertsonal guztiaren etengabeko prestakuntzari eta parte-hartze aktiboari laguntza ematea.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren barne- eta kanpo-komunikazioaren bideak hobetzea.
- Behar den malgutasunaz jokatzeko, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueri dagozkien eskakizun eta premietara egokitzeko.
- Ikuskaritzaren funtzionamenduan definitutako prozesuetan dauden akatsen arrazoiak identifikatu eta ezabatzea, prozesu horiek eraginkorragoak izan daitezen.

Kalitate-politika honek behar den erreferentzia ematen du, Ikuskaritzaren jardueran nagusi diren estrategiak ezarri eta berrikusteko. Estrategia horiek kalitatearen helburuetan konkretatzen dira.

Hezkuntza Ikuskaritzak behar diren bideak ezarri ditu, politika hori pertsonal guztiari jakinarazteko eta hark uler dezan, eta sistema berrikustean, aldizka berrikusten dela bermatzen du.

3.- HELBURUAK

Urteko Plana eta berorretan ezartzen diren jarduerak 2014-17ko Hirurteko Plan Orokorren helburuak betetzera zuzenduta daude eta esku hartzeko plan horretan definitzen diren oinarrizko ildoekin bat datoz (Hirurteko Plan Orokorren I. eranskina).

Ondoren jarduera horiek, Hirurteko Plan Orokorren helburuak eta esku hartzeko lotutako ildoak jasota agertzen dira.

2014-2017ko HIRURTEKO PLANAREN HELBURU OROKORRAK	ESKU HARTZEKO ILDO OROK. HIRU URTEKO PLAN OROKORRA	2016-17ko IKASTURTEAREN JARDUERAK
<p>1. Ikastetxeak, zuzendaritza-funtzioa eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea eta hezkuntza-sistemaren kanpo ebaluazioetan parte hartzea.</p>	<p>Ikastetxeak hobetzen laguntzeko kanpo ebaluazioak.</p> <p><i>(Esku hartzeko oinarrizko ildoak, ikastetxeak ikuskatzeari lotutakoa)</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeen urteko planak eta 2015eko diagnostiko-ebaluazioaren hobekuntza-planak baloratzea. • Lehen Hezkuntzako 4.eko eta DBHko 2.eko ebaluazioetan parte hartzea. • Lehen Hezkuntzako 6.eko, DBHko 4.eko eta Batxilergoko 2.eko ebaluazioan parte hartzea.
	<p>Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa, ikastetxeak hobetzen laguntzeko.</p> <p><i>(Esku hartzeko oinarrizko ildoak, ikastetxeak ikuskatzeari lotutakoa)</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa, ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera. • Zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko araudia gaurkotzea. • Zuzendariak selekzionatzeko prozesua (legeriaren arabera).
	<p>Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa, funtzio horretan hobeto aritzen laguntzeko.</p> <p><i>(Esku hartzeko oinarrizko ildoak, ikastetxeak ikuskatzeari lotutakoa)</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> • Irakaslearen perfil profesionala egitea eta unibertsitatearekin edo beste erakunde batzuekin kontrastatzea. • Perfil profesionala erabiltzea irakasleak ebaluatzeko dituzten AZ desberdinetan.
<p>2. Eraginkortasunez erantzuna ematea Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileen premiei.</p>	<p>Hartzaile desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzea, Ikuskaritzaren esku-hartzea kalitate handiagokoa izaten lagunduko duten estrategiak ezarriz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuskaritzaren txosten eta bisitak baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea eta berrikusi eta hobetzeko prestakuntza planifikatzea. • Ikasturtearen hasiera eta bukaerako esku-hartzea. • Administrazio-pertsonalari zuzendutako prestakuntza-jarduerak, haren lanak egiteari lotuta daudenak.

2014-2017ko HIRURTEKO PLANAREN HELBURU OROKORRAK	ESKU HARTZEKO ILDO OROK. HIRU URTEKO PLAN OROKORRA	2016-17ko IKASTURTEAREN JARDUERAK
<p>2. Eraginkortasunez erantzuna ematea Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpoko hartzaileei.</p> <p>3. Indarreko legeria betetzen den ikuskatzea, hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta eginbeharrak beteko direla bermatzeko.</p> <p>4. Hezkuntza Sailaren programa eta proiektuak ikastetxeetan nola gauzatzen diren kontrolatu eta ebaluatzea.</p>	<p>Ikastetxeak ikuskatzea: erreferentzia-ikuscaria esku-hartze globalaren metodologia batekin aritzea, ikastetxeen funtzionamendua hobetzen laguntzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Jarraipenaren jarduera espezifikoak, ikastetxeak hobetzeko prozesua sustatzeko. • Sailaren eskaerak (arau-kontrola eta programen jarraipena). <p><i>(Ikastetxeak ikuskatzeari lotutako esku-hartzearen oinarrizko ildoak izatera pasatzen diren jarduerak)</i></p>
<p>2. Eraginkortasunez erantzuna ematea Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpoko hartzaileei.</p> <p>3. Indarreko legeria betetzen den ikuskatzea, hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta eginbeharrak beteko direla bermatzeko.</p>	<p>Eskola-giroaren jarraipena: elkarbizitza kudeatzea, hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta eginbeharrak beteko direla bermatzeko.</p> <p><i>(Esku-hartzearen oinarrizko ildoak, ikastetxeak ikuskatzeari lotua)</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eskola-jazarpenaren kasuen jarraipena eta elkarbizitza kudeatzea ikastetxeetan. • Elkarbizitza-planaren gida hedatzea.
<p>5. Ikuskariak Hirurteko Plan Orokor honen ondoriozko premien arabera prestatzea.</p>	<p>Ikuskaritzaren prestakuntza hobetzea eta garapen profesionala sustatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio- eta prestakuntza-saioak antolatzea, esku hartzeko Urteko Planen ildoei zuzenean lotutako alderdiei buruzkoak eta ebaluazioaren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzearen ondoriozko alderdiei arreta berezia emanez. • Aldizkako prestakuntza praktikoa ikuskari eta administrariei ematea, Ikuskaritzak ohiko lanean erabiltzen dituen aplikazio informatikoei buruzkoa.
<p>6. Hizkuntz normalkuntzari laguntzeko asmoz, euskararen erabilpena sustatzea.</p>	<p>Euskaraz hobeto komunikatzea sustatzeko jarduerak planifikatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskara erabiltzeko plana hedatu eta ezartzea. • Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako IRALE programak dituen aukerak erabiltzea.
<p>7. Hezkuntza Ikuskaritza antolatzeko eredia berrikustea.</p>	<p>Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko, antolatzeko eredia gaurkotzea. Ikuskarieren inplikazio eta parte-hartzean sakontzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Araudi berriaren antolaketa-alderdiak ezartzea. • Zonalde burutzen merezimendu-lehiaketa. • Barne komunikaziorako prozesua hobetzea (administrazio-pertsonala barne).

2014-2017ko HIRURTEKO PLANAREN HELBURU OROKORRAK	ESKU HARTZEKO ILDO OROK. HIRU URTEKO PLAN OROKORRA	2016-17ko IKASTURTEAREN JARDUERAK
8. ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzea eta zerbitzua hobeto emateko kudeaketa-sisteman aurrerapausoak ematea.	Kudeaketa-sistema berrikustea, Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Aplikazio informatikoen bidez Ikuskaritzaren kudeaketa apur-apurka ezartzeko prozesuarekin jarraitzea. • Kudeatzeko sistema UNE-EN ISO 9001:2015 arauan ezarritako baldintzetara egokitzea.
9. Ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea.	Ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea, ikuskariak bere garapen profesionala hobetzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuskaritza-funtzioaren gaitasunen matrizen hausnarketa eta analisia eta berori gaurkotzea. • Prozedura zerbitzu-eginkizunetan ari diren ikuskariei aplikatzea.
10. Hezkuntza-munduko beste organismo edo erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko ildoak ezartzea.	Berriztapena eta praktika onak trukatzeko, beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzea. Erasmus Plus programan parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Erasmus Plus programaren jarduerak bigarren kurtsoan garatzea. • Praktika onak beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin trukatzeko.

4.- 2016-2017ko IKASTURTEAN ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK

Aurreikusitako hirurteko helburuak lortzeko lagungarri diren urteko jarduerak sartzen diren erreferentzia-markoa dira 2014-17ko Hirurteko Plan Orokorren esku-hartzearen oinarrizko ildoak.

2016/17ko ikasturtean esku hartzeko oinarrizko ildoak bi multzotan aurkezten dira:

1. multzoa: ikastetxeen ikuskatzeari lotutakoak.
2. multzoa: Ikuskaritza Zerbitzuaren beraren hobekuntza eta garapenari lotutakoak.

1.multzoa: esku hartzeko oinarrizko ildoak, ikastetxeak ikuskatzeari lotutakoak.

Hezkuntza Ikuskaritzak, bere esku-hartzeen bidez, hezkuntzarako eskubidea bermatzen eraginkortasunez lagundu behar du eta, halaber, ikastetxeek kalitateko erantzun bat, ikasleek beren ikasteko prozesuetan eta garapen pertsonal, sozial, emozional eta profesionalean arrakasta izan dezaten, eskaintzea sustatu behar du.

Bestalde, ez dugu Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioa ahaztu behar, ikastetxeen eta hezkuntza-sistemaren egoeraz Administrazioari informazioa eta aholkularitza ematen dizkion eragilea den aldetik, hezkuntza-sistema hobetzeko erabakiak errazago hartze aldera.

Horretarako, ikastetxeetan era proaktiboan esku hartzeko eredu bat aukeratu du EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak; eredu horretan, ikuspegi global eta sistemiko batetik abiatuz, ikastetxeetan egiten diren jarduera guztiak integratzen dira eta elkarren artean dute harremana. Hori ikastetxeen ezaugarriak, funtzionamendua eta jarduera ezagutze aldera, aztertu eta baloratu ondoren proposamenak egin ahal izateko. Proposamen horiek ikastetxeak bere eskola-erkidegoari eta, oro har, gizarteari eskaintzen dion hezkuntza-zerbitzuaren kalitatea hobetzeko izango dira lagungarri.

Esku hartzeko era horrek Ikuskaritzak ikastetxeetan egiten dituen jarduera guztiei eragiten die; izan ere, hirurteko eta urteko planetan planteatutako helburuen arabera gauzatu behar dira jarduera horiek.

Marko horretan, esku hartzeko ildo batzuk definitzen dira urtero eta haien garapenak ikastetxearen elementu desberdinen integrazioa, eraginkortasunez jarduteko beharrezkoak izan litezkeen datuak jasotzea, datuak erkidego mailan ustiatzea eta, izan beharreko malgutasuna kontuan hartuta, Ikuskaritzaren jardueren orientabidea eta homogeneizatzea errazten dituzten tresnak ditu oinarri. Tresna horien artean, besteak beste, hauek ditugu aipagarri:

a) Ikastetxea bisitatzea

Ikuskariaren bisitak duen garrantzia aitortzen da, ikastetxe baten errealitatea alderdi guztietan, antolaketatik alderdi pedagogikoetara, ikuskatu eta ezagutzeko tresna den aldetik; horiek horrela, ikastetxeetan esku hartzeko lan egiteko oinarrizko era da bisita. Ikuskariaren presentziak ikastetxearen errealitatea zuzenean ezagutzeko premia eta garrantziarekin izan beharko dute zerikusia, bisita horren ondorioz ikastetxeak hobeto funtzionatzeko lagungarri izango diren proposamen konkretuak egiteko. Bisitak behar bezala planifikatzea helburuak eraginkortasunez lortzeko izango da lagungarri.

b) Ikastetxearen koadernoia

Tresna hau elementu dinamikoa da eta erraztasunak ematen dizkio ikuskari bakoitzari ikastetxean egin beharreko lana planifikatzeko orduan, baita ikastetxean egiten den jardueraren jarraipena egiteko ere.

Ikastetxe bakoitzaren funtzionamenduari eta Ikuskaritzaren jarduera esanguratsuenei lotutako informazio nabarmena jasoko da, baita Urteko Planean definitutako esku hartzearen ildo bakoitza garatzearen ondoriozko alderdi kualitatibo eta deskriptiboak ere. Ikastetxearen

koadernoak ikastetxeak kurtso bakoitzean egiten duen jarduera eta ikastetxe horren funtzionamendua azaldu beharko ditu eta, etorkizunari begira, ezagutu edo lantzeko premiazkoak edo interesgarriak izan daitezkeen alderdi horiek sartuko ditu.

Batez ere, erreferentzia-ikuskariaren jardueren eta jarduera horien bidez eskuratutako ikastetxearen ezagutzaren ondoriozko balorazio, ondorio eta proposamenak azpimarratuko dira. Balorazio, ondorio eta proposamen horiek erreferentzia izango dira ikastetxean egin beharren lanaren helburuak planifikatzeko orduan. Ildo horretan, idazpuruak "IKUSKARITZA" epigrafea duen koadernoaren atala berorren ardatza da, ematen baitu hausnartzeko eta ikuskariak ikastetxean egin beharreko jarduera planifikatzeko espazio bat eta hura baita gainontzeko atalei izateko arrazoia ematen diena; izan ere, Ikuskaritzaren jardueren egiazko balio erantsia diren ondorio, balorazio eta proposamenak jasotzen ditu.

Horiek guztiak ikastetxeen egoerari eta premiei buruzko datuak emango dituzte eta, beraz, funtsezko erreferentzia izango dira, Ikuskaritzaren Urteko Planak egiteko eta Hezkuntza Administrazioari aholkularitza emateko orduan.

- c) Hiruhilekoko jardueren eta galdekizunen formularioak. Ematen dute, Erkidegoaren informazioa lortzeko, datuak bildu eta ustiatzeko aukera. Ikasturte honetan jasoko diren gaiak V92 aplikazioaren espazioan kokatutako agiri batean zehazten dira: ikastetxeak ikuskatzea.
- d) Ikuskarien jarduera erraztera bideratutako argibide, orientabide eta ereduak. Behar den AZn edota barne orrian kokatuko dira.

Ikuskaritzaren jardueraren sistematizazioa bera, kalitatea kudeatzeko sistemaren bidez, ikuskatzeko eredu honen zerbitzuan dago eta berorren garapena errazten du, ematen baitu ikastetxearen inguruko jarduera guztiak integratzeko aukera, baita jarduera horien jarraipena eta ebaluazioa ere.

Jarraipen eta ebaluazio horiek, batez ere, zerbitzua koordinatzeko egitura desberdinen, sistemaren kontrola eta jarraipena egiteko tresnen, erabiltzaileak zein mailatan dauden pozik jakiteko prozesuen eta ikastetxearen koadernoaren "IKUSKARITZA" atalaren bidez egingo dira eta jasotako datuen ondorioz sortuko diren erkidegoaren txosten eta memorietan jasota agertuko dira.

Marko horretan, ondorengoak dira 2016-2017ko ikasturtean jarduteko oinarrizko ildoak:

4.1 Ikastetxeen hobekuntzari laguntzeko kanpo ebaluazioak.

Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioen artean, besteak beste, hezkuntza-sistemaren eta osatzen duten elementuen ebaluazioan parte hartzea da. Ildo horretan, EAEn egin diren azken kanpo ebaluazioetan, zentsu-izaera batekin, Ikuskaritzak izan duen funtzio inportantea nabarmendu behar da. Alde batetik, probak ikastetxeen lagin batean nola aplikatu diren kontrolatu du Ikuskaritzak eta, bestetik, ebaluazioaren emaitzei erantzuna emateko ikastetxeek egindako hobekuntza-planak baloratu ditu.

Ikasturte honetatik aurrera, eta Ikastetxearen Urteko Plana ikastetxearen jarduera guztia biltzen duen elementua dela iritzita, balorazio hori Urteko Planaren helburu guztietara hedatu da, helburu hauek ikastetxeen kanpo eta barne ebaluazio guztien emaitzen ondorio direla iritzita.

Ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Ikastetxeen urteko planen eta 2015eko diagnostiko-ebaluazioen hobekuntza-planen balorazioa.
- Lehen Hezkuntzako 4.eko eta DBHko 2.eko ebaluazioetan parte hartzea.
- Lehen Hezkuntzako 6.eko, DBHko 4.eko eta Batxilergoko 2.eko ebaluazioetan parte hartzea.

4.2 Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa, ikastetxeak hobetzen laguntzeko.

Hezkuntza Ikuskaritzak zazpi ikasturte daramatza zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa egiten eta ebaluazio horrek funtzio hori hobeto betetzeko laguntzea du helburu, ebaluazio-prozesuari buruz argitara eman diren aginduak erreferentziazat hartuz.

Ikasturte honetan ondorengo jarduerak egingo dira:

- Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa, ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera.
- Zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko araudia gaurkotzea.
- Zuzendariak selekzionatzeko prozesua (araudiaren arabera).

Zuzendaritza-proiektuarekin integratuta dauden ikastetxeetako zuzendaritzen kasuan, lehen urtean, jarduera V92 aplikazioaren bidez kudeatuko da. Gainontzekoetan (3., 4., 7. eta 8. ikasturteetan ebaluatu diren zuzendaritzak), barne orriaren bidez egingo da, aurreko ikasturteetan bezala.

4.3 Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa, funtzio horretan hobeto aritzen laguntzeko.

Azken bi ikasturteetan, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzan funtsezko aurrerapenak gertatu dira zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko prozesuak diseinatu eta ezartzeko orduan, baita ikastetxeen barne ebaluazioekin dagoen lankidetzan ere, diagnostiko-ebaluazioari begira batez ere.

Prozesu horiek finkatuta, eta beraiek aplikatzeko orduan sortu den ezagutzatik abiatuta, irakaskuntza-funtzioa ebaluatzeko prozesuak gerta daitezten urratsak emateko baldintzak betetzen ditu EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak. Zentzu horretan, jarraipena eman behar zaio joan den ikasturtean hasitako prozesuari, hots, ikastetxea bisitatzeari eta praktiketako fasean dauden irakasle funtzionarioen % 20rekin, gutxienez, prestakuntza-autoebaluazioa egiteko proposamenari.

Ikasturte honetan jarduera hau egingo da:

- Irakaslearen perfil profesionala egitea eta unibertsitatearekin edo beste erakunde batzuekin alderatzea.
- Perfil profesionala erabiltzea irakasleak ebaluatzen dituzten AZetan.

4.4 Eskola-giroaren jarraipena: elkarbizitzaren kudeaketa, hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak errespetatuko direla bermatzeko.

Eskola-jazarpenaren kasuetan, edo elkarbizitzaren kontrako edozein portaera gertatuz gero, jarraipena egiten jarraituko du Hezkuntza Ikuskaritzak.

Ikasturte honetan ondorengo jarduerak egingo dira:

- Eskola-jazarpenaren kasuen jarraipena eta elkarbizitzaren kudeaketa ikastetxeetan.
- Elkarbizitza-plana egiteko gida hedatzea.

4.5 • Sailaren eskaerak (arau-kontrola eta programen jarraipena).

Ondorengo proiektuen jarraipena egingo da:

- Hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa.
- Hauspoa programa.
- Hamaika esku programa.
- Sare Hezkuntza gelan programa.
- Arreta goiztiarra
- ...

4.6 Jarraipenaren jarduera espezifikoak, hobekuntza sustatzeko ikastetxeetan.

Puntu hauek sartzen ditu: erreferentzia-ikuskari bakoitzak esku hartzeko premia handiagoa ikusten duen alderdi horien banakako jarraipena eta beste jarduera orokorrago batzuk, ikastetxeetako taldeei eragiten dietenak, antzemandako premiei /zailtasunei eman beharreko erantzunarekin lotuta egon daitezkeenak edo irakatsi eta ikasteko prozesuaren edo ikastetxearen funtzionamenduaren zenbait alderdi hobetzera bideratuak.

Ildo horretan ondorengo jarduerak sartzen dira:

4.6.1.- Ikastetxearen Urteko Planaren helburuen analisia, balorazioa eta jarraipena. (4.1. puntuan egin zen horren erreferentzia).

4.6.2.- Erreferentziako ikastetxeetan esku hartzeko helburuak planifikatzea eta ikastetxea hobetzeko eta berorren jarraipena egiteko proposamena, Ikuskaritzari berari bideratuak.

Ikasturte bakoitzaren hasieran erreferentzia-ikuskari bakoitzak planifikatuko du ikastetxean egin beharreko jarduera eta, horretarako, aurreko ikasturtean egindako balorazioetan oinarritutako helburuak ezarriko ditu. Horiek horrela, eta ikasturte honek bukatu ondoren, helburu horiek zein mailatan lortu diren baloratuko da.

Gainera, urtero egiten duen ikuskatze-lanaren bidez jasotako informazioa analizatu eta baloratzearen ondorioz, hobetzeko proposamenak helaraziko dizkio erreferentzia-ikuskariak ikastetxeari eta gomendioak emango ditu, datorren ikasturteari begira Ikuskaritzak berak jarraipen egokiena egite aldera.

4.6.3.- Ondorengo alderdietan hobekuntza sustatzeko, ikastetxeen selekzio batean esku hartzea:

- Programazio didaktikoak
- Irakasleen prestakuntza
- Irakasleen ebaluazioa

2. multzoa: esku hartzeko oinarriko ildoak, Ikuskaritza zerbitzua bera hobetzeari eta garatzeari lotutakoak.

4.7 Hartzaile desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzea, Ikuskaritzaren esku-hartzea kalitate handiagokoa izateko lagungarri izango diren estrategiak ezarriz.

Azken ikasturteetan egiaztatu denez, errendimendu-maila handia du EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak, programatutako jardueren eta geroago sortu direnen % 100 gauzatu baita praktikan.

Une honetan sakontzen jarraitu behar dugu gure jardueren kalitatea hobetzeko lanean. Txostenen kalitatea azpimarratzen jarraituko da eta ikastetxera egin beharreko bisita landuko da, haien helburuarekin behar bezala betetzen dutela bermatzeko. Ikuskatze-prozesuaren barruan, Ikuskaritzak ikastetxera egin beharreko bisiten kalitatea eta ikuskariak beren erreferentziako ikastetxeetara egin beharreko bisitak planifikatzeko premia landuko dira espezifikoki ikasturte honetan.

Ikasturte honetan ondorengo jarduera egingo da:

- Ikuskaritzaren txostenak baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea eta berrikusi eta hobetzeko prestakuntza planifikatzea.
- Ikasturtearen hasierako eta bukaerako esku-hartzea.
- Administrazio-pertsonalari zuzendutako prestakuntza-jarduerak, eginkizunak gauzatzeko prozesuarekin lotuta daudenak.

4.8 Prestakuntzaren hobekuntza eta Ikuskaritzaren garapen profesionala sustatzea.

Ikuskaritzaren markoak eta jarduteko metodologiak maila profesional handiko eta etengabe garatzen ari den prestakuntza bat eskatzen dute eta horrek prestakuntza-jardueren multzo bat planifikatzea exijitzen du.

15-16ko ikasturtearen ebaluazioan, batez ere, ondorengo gaiei buruzko prestakuntza eskatu zen: zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa, ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzea hobetzea (ikastetxeak ikuskatzea), aplikazio informatikoak, araudiaren gaurkotzea eta prestakuntza juridikoa, ebaluazioa. Aldizka ikuskariei eta administrariei eman beharreko prestakuntza praktikoari, Ikuskaritzak bere ohiko lanean erabiltzen dituen aplikazio informatikoei eta araudiaren gaurkotzeari eta gaurkotze juridikoari buruzkoari, arreta berezia ematea.

Hau kontuan hartuta, ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Urteko Planetan esku hartzeko ildoei zuzenean lotutako alderdiei buruzko informazio- eta prestakuntza-saioak antolatzea, ebaluazioaren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzearen ondoriozko alderdiei arreta berezia emanez.
- Aldizkako prestakuntza praktikoa, ikuskariei eta administrariei zuzendutakoa, Ikuskaritzak ohiko lanean erabiltzen dituen aplikazio informatikoei buruzkoa.

Urteko Plan honen IV. eranskinean Prestakuntza Planaren jarduerak adierazten dira.

4.9 Euskaraz komunikatzea sustatzeko eta komunikazio hori hobetzeko jardueren planifikazioa.

Ikuskaritzaren ahozko eta idatzizko komunikazioak eta komunikazio telematikoak *Euskararen Erabilpena Eusko Jaurlaritzan Normalizatzeko Plan Orokorrak (2013-2017)* eta geroago izan litezkeen planek xedatutakora egokitzeko, euskararen erabilpena, idatziz batez ere, hobetu beharko da, barne jakinarazpen eta txostenetan eta ikastetxeekin izan beharreko harremanetan erabili beharko da euskara, Euskara Erabiltzeko Planean aurreikusitako kalitateko komunikazioak sustatu beharko dira eta Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako IRALE programak azaltzen dituen aukerak erabili beharko dira.

Ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Euskara Erabiltzeko Plana hedatu eta ezartzea.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako IRALE programak kontuan hartzen dituen aukerez baliatzea.

4.10 Ikuskaritzak hobeto funtzionatzeko, antolaketa-eredua gaurkotzea. Ikuskarrien inplikazioan eta parte-hartzean sakontzea.

Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko asmoz, antolaketa-eredua berrikusten jarraituko dugu ikasturte honetan. Horiek horrela, urratsak ematen jarraituko dugu ardurak banatzeko orduan, ikuskari guztien parte-hartzea eta inplikazioa areagotzeko; halaber, oreka handiagoz jokatu da lan-kargak banatzeko orduan.

Gainera, 2015-16ko ikasturtean egin zen Ikuskaritzaren barne komunikazioko prozesuei buruzko hausnarketa eta, hausnarketa horren ondorio gisa, proposamen hauek egin ziren: ezagutza partekatze espazio gehiago sortzea eta goranzko eta beheranzko komunikazioa hobetzea. Proposamen horiei erantzuna emanez, hobetzen laguntzeko prozedurak diseinatu eta ezarriko dira.

Ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Araudi berriaren antolaketa-alderdiak ezartzea.

- Zonalde burutzen merezimendu-lehiaketa
- Barne komunikazioaren prozesua hobetzea (administrazio-pertsonala barne).

4.11 Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko, kudeatzeko sistema berrikustea.

EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren politika eta estrategia (egitekoa, ikuspegia eta baloreak) berrikusi eta gaurkotu ondoren eta ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzen dugula, zerbitzua hobeto emateko lagungarri izango den kalitatea kudeatzeko sisteman sakonduko dugu. Aurreikuspenen arabera, ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Ikuskaritzaren kudeaketa atari berrian apur-apurka ezartzeko prozesuarekin jarraitzea.
- Sistema UNE-EN ISO 9001:2015 arauan ezarritako baldintzetara egokitzea.

4.12 Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa, ikuskariaren garapen profesionala hobetzeko.

Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak emandako argibideen arabera, Ikuskaritzan zerbitzu-eginkizunetan ari diren pertsonak ebaluatzen jarraitu beharko da, zerbitzu-eginkizun horiek luzatzeko ezinbesteko baldintza den aldetik. Ikasturte honetan jarduera hau egingo da:

- Ikuskaritza-funtzioaren gaitasun-matrizari buruzko hausnarketa eta azterketa eta berori gaurkotzea.
- Prozedura zerbitzu-eginkizunetan ari diren ikuskariei aplikatzea.

4.13 Beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, berriztapena eta praktika onen trukatzeko. Erasmus Plus Programan parte hartzea.

Hirurteko Plan Orokorra indarrean dagoen aldiari Hezkuntza Ikuskaritzaren dimentsio europarra indartzeko prozesua sustatuko da, Erasmus Plus programaren KA2 jardueran parte hartzearen bidez gaitasun profesionalak areagotzeko.

Beste herrialde eta hezkuntza-sektore batzuetako kideekin lankidetzari hasiera ematea ez ezik, beste ikuskaritza eta hezkuntza-ikerketari eta prestakuntza pedagogikoari lotutako erakunde batzuekin informazioa eta esperientzia trukatzeko prozesua ere indartuko da.

Aurreikuspenen arabera, ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Erasmus Plus Programaren jarduerak bigarren kurtsoan gauzatzea.
- Beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin praktika onak trukatzeko.

5.- HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN PROZESUAK

2014-17ko Hirurteko Plan Orokorrean prozesuen mapa berrikustea planteatzen zen, Hirurteko Plan Orokorrearen beraren "ISO 9001:2008" ziurtagiriarekin jarraitzea eta zerbitzua hobeto emateko kudeaketa-sisteman aurreratzea " helburuari lotutako "Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko kudeaketa-sistema berrikustea" esku hartzeko oinarritzko ildoaren arabera.

Haien zerrenda indarrean jarraitzen duen 2015-2016ko Urteko Planean sartu zen azpiprozesuen sailkapenaren eta izenaren berrikuspina onartu ondoren; horregatik, 2015-2016ko Urteko Plan hori ez da atal honetan sartzen. Gainera, zerrenda hori Urteko Plan honen II. eranskinean, "2016-2017ko Ikuskaritza Planeko azpiprozesuen zehaztapenak", agertzen da.

Azpiprozesuak prozesu bakoitzaren barruan taldekatzen dira, irizpide funtzionalen, eskaeraren, hartzailen tipologiaren, ... arabera.

PR Ebaluazioa PR0210
PR Ikastetxeak ikuskatzea PR0220
PR Eskareei arreta ematea PR0230
PR Aholkularitza PR0240

Azpiprozesuen sailkapena eta izena, prozesuen maparekin batera, berriro ere izango dira berrikuspenaren helburua 2016-2017ko ikasturtean, kudeatzeko sistema ISO 9001 arau berriak ezartzen dituen baldintza berrietara zein mailatan egokitu den ezagutzeko asmoz. Horiek horrela, hasiera emango zaio ISO 9001:2015 arau berrira ikasturte honetan egokitzeko prozesuari.

Azken ikasturteetan azpiprozesuak Hezkuntza Ikuskaritzaren aplikaziora sartu direla eta praktikan jarduera guztiak aplikazio informatikotik garatu eta kontrolatzen direla kontuan hartuta, barne webaren funtzioari buruzko hausnarketa bat egin eta duen dokumentazio guztia berrikusi behar da, aplikazio informatikoan dagoenarekin bat etor dadin. Kalitate Batzordeak egin beharko du lan hori, ikasturte honetan.

6.- IKASTETXEAK IKUSKARIEI ESLEITZEA.

Ekainaren 28ko 98/2016 dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzarena, 2016ko uztailaren 4ko EHAAren argitara eman ondoren eta ikuskariak Ikuskaritzako zonaldeetara esleitzeko prozesuak bukatuta, ikastetxeak ikuskariei esleitzeko prozesua berrikusi beharko da 2016-2017ko ikasturtearen hasieran.

Antolaketa-egituraren arabera, eta erreferentzia-ikuscaria den aldetik, ikastetxeen kopuru zehatz bat esleituta izango du Hezkuntza ikuskari bakoitzak eta berak izango du bere gain ikastetxe horiek ikuskatzearen eta esku-hartzearen ondorioz egin beharreko administrazio-jardueren ardura (98/2016 dekretuaren 9. artikuluan 7. atala).

Aldizka berrikusi behar da ikastetxeak esleitzeko prozesu hori, estiloak eta ikuskarien prestakuntza anitzak izatea aberasgarri baita ikastetxeei, epe luzera, eman beharreko arretarako; gainera, ikuskariek horrela objektibotasun handiagoz jokatuko dute balorazioak egin eta erabakiak hartzeko orduan.

Aipatutako honekin bat etorrita, 98/2016 dekretuaren 19. artikuluan 6 urteko aldi bat ezartzen du zonaldez aldatzeko eta zonaldez aldatze horrek, derrigorrean, ikastetxeak aldatu behar izatea dakar. Zonalde-aldatzea borondatezkoa izan dela eta lurralde jakin edo Ikuskaritzaren egoitza batzuetan zonalde-aldaketa hori egiterik ez dagoela kontuan hartuta, oso gutxi izan dira ikastetxeak esleitzeko orduan arrazoi horrengatik gertatu diren aldaketak.

Horregatik, ikastetxeak ikuskariei esleitzeko prozesua berrikusi behar dela jakinarazi du Ikuskaritza Nagusi honek, Lurralde Arteko Batzordeak 2016ko uztailaren 14ko egin zuen bileran ezarritako irizpideen arabera. Irizpideak hauek dira:

Ikastetxeak esleitzeko prozesuan, oro har, erreferentzia-ikuskariei gisa 6 ikasturte edo gehiago eramaten baldin badira, egingo da aldaketa. Xedapen orokor honek ez die ondorengo kasuei eragingo:

- Hamaika Esku programako ikastetxe bat dutenek ikastetxe horretan jarraitzeko aukera izango dute.
- Agintaldiaren 4. edo 8. urtean haien zuzendaritzak datorren ikasturtean ebaluatuak izango diren ikastetxeak dituztenek ikastetxe horietan jarraitu ahal izango dute.
- Datorren ikasturtean erretiroa hartuko duten edo hartzeko asmoa adierazten dutenek izango dute 2015-2016ko ikasturteko erreferentzia-ikastetxeekin jarraitzeko aukera.
- Lurralde buruaren iritziz justifikatuta dauden beste aparteko arrazoi batzuk.

Gainera, Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeak, 0-3 urteko ikastetxe pribatuak eta musika-eskolak zonaldeen irizpidearen arabera geratzen dira. Horiek horrela, sei urte edo gehiago

daramatzatenek izango dute, edo ez, aldatzeko aukera, zonalde taldean hartzen den akordioaren arabera. Akordiorik izan ezean, Zonalde Burutzak, edo Lurralde Burutzak, hartuko du erabakia.

Erreferentzia-ikastetxeetan gertatzen diren aldaketa guztiak irailean zehar gauzatuko dira, esleitutako ikastetxeak aldatzen dituzten ikuskariek falta diren lanak bukatu ondoren.

98/2016 dekretuan ezarritako gaitasun eta funtzioak kontuan hartuta eramango da prozesu hau guztia aurrera:

Ikastetxeak ikuskari bakoitzari esleitzeko proposamena egingo diete Lurralde Burutzei Zonalde Burutzek, zonalde taldeei entzun ondoren (15.e artikulua) eta Lurralde Burutzek ikastetxeen kopuru zehatz bat esleituko diete ikuskari bakoitzari, Zonalde Burutzen proposamenez (13.d artikulua).

